



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

I. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2015eko maiatzaren 13, 14 eta 15
Durango, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZARTE ZIENTZIAK

**EAEko Gizarte Zerbitzu
Sistemaren konplexutasunaren
faktore erabakigarriak eta
zerbitzuen lurralde esleipenean
honek dituen ondorioak**

Felix Arrieta Frutos

206-211 or.
<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.i.27>

ANTOLATZAILEA:



BABESLEAK:



eman ta zabal zazu



LAGUNTZAILEAK:



UDALBILTZA



EAEko Gizarte Zerbitzu Sistemaren konplexutasunaren faktore erabakigarriak eta zerbitzuen lurralde esleipenean honek dituen ondorioak.

Arrieta Frutos, F.

*Deustuko Unibertsitatea, Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea, Gizarte Lana eta Soziologiako Saila, 'Deustu Gizarte Balioak' ikertaldea.
felix.arrieta@deusto.es*

Laburpena

EAEko gizarte zerbitzuen sistema modu ezberdinean egituratu da Lurralde Historiko bakoitzean. Doktorego tesi honen helburua honen zergatiak aztertzea da, EAEko sistema politiko federalak gizarte zerbitzuen sistema egituratzean izan duen eraginean arreta berezia jarritz. Datuetatik eratorriz, lurralde ezberdintasunak ziurtatuko dira eta sisteman eragile diren pertsonak elkarriketatuz honen zergatietan sakondu.

Hitz-gakoak: gizarte zerbitzuak, federalismoa, gobernantza, ezberdintasunak

Abstract

Basque social care system has been articulated in a different way in each 'Historic territory'. The main objective of this thesis is to find the reasons of this territorial articulation, thinking specially on the effects of federalism on the articulation of the basque social care system. From the data the system provides we are going to prove the differences and go into details about the reasons doing interviews to relevant people.

Keywords: social care, federalism, governance, differences

1. Sarrera

Gizarte zerbitzuen garapena eztabaidagai garrantzitsua bihurtu da azken urteetan. Bizi dugun krisi ekonomiko eta sozial sakonaren garaietan, soziologo ezberdinek arriskuaren gizarte, gizarte likido edo gaseoso deitzen duten honetan, gure babes sistemaren egituraren inguruko eztabaida intentsitatez eta baita bolumenez ere handituz joan da. Bigarren Mundu Gerraren ostean Ongizate Estatuaren fenomeno gisa azaldu zenetik, ekintza publikoak kohesio sozialerako bideratutako politikak aurrera eramateko moduak zabaltzen joan dira Europa osoan. Ongizate Estatuaren urrezko aroa deritzona izan zen, Europan gizarte segurantza, hezkuntza eta osasun sistemak garatu eta indartu ziren urteak, ezaugarri ezberdinekin, baina denek unibertsalitatea helburu izango zutenak.

Espainiar Estatuaren Ongizate Estatuaren urrezko aroa Marshall Plana bezalaxe igaro zen Berlangaren pelikulan horren ongi ikus daitekeen bezala: bertan geratu gabe. 1978ko Konstituzioa onartzetik aurrera, eskuduntzen deszentralizazioak ekarri zuen gizarte zerbitzuen garapena erkidego eta udaletan, hori bai, bakoitzak erabaki zuen erritmo eta moduetan. EAEko 1982ko Gizarte Zerbitzuen legeaz geroztik erkidego bakoitzak bere legedi eta antolaketa eredu propioa jarri zuen abian.

Euskadin, Autonomia Estatutuak eta 1983ko Lurralde historikoen legeak jarri dute gizarte zerbitzuen inguruan onarturiko hiru legeentzako beharrezko eszenatokia. Eszenatoki honek, eskuduntzak udal, aldundi eta jaurlaritzaren artean banatzen ditu, baita onartutako azkeneko legean ere, 12/2008.ean.

Testuinguru honetan eratzten da EAEko gizarte zerbitzuen sistema. Eraitza onak ematen dituen sistema, indikadore guztien arabera, baina gobernu sistema zatikatua duena, erabaki prozesuak luzatuz. Hau izan da beraz doktorego tesi hau mugatu duen testuingurua eta galderak planteatzera eraman duena.

2. Ikerketaren helburuak

Ikerketa hau hiru helburu nagusiren baitan mugatu da bere definizioan. Lehenbizi, EAEko egitura federalak eta beraz, hau gauzatzen duen sistema politikoak gizarte zerbitzuen sistemaren egituraketan zuen eragina azaldu nahi izan dugu. Horrela, sistema politiko federalak gizartze zerbitzuen lurraldetasunean zuen eragina ikustean, hiritarren zerbitzuetara izan zezakeen sarbidea eta baldintzak ere azter zitezkeen elementu estrukturalen argitan.

Bigarrenik, EAEko gizarte zerbitzuen sistema osatzen duten aktore eta agente politikoen osaera aztertu eta honekin batera, berau ulertzeko giltzarri nagusien identifikazioa gauzatu. Azkenik, faktore hauek Gizarte Zerbitzuen sistemaren lurralde egituraren sortzen dituzten eraginak identifikatuko dira, ekitatearen ikuspegitik.

3. Ikerketaren muina eta ondorioak

Doktorego tesiak, ohiko eskema bati jarraituz, bi zati nagusitan bereizten du bere egitura: marko teorikoa edo erreferentzia nagusieneri begirada eta ondoren, analisi enpirikoa eta lanetik eratorritako ondorioak.

Marko teorikoaren garapenari dagokionez, hiru kontzeptu nagusi zehaztu eta definitzeari orientatu da bere egitua: federalismoa eta honek ongizate estatuaren duen eragina, gizarte zerbitzuak eta bi hauen egituraketa EAEko esparru juridiko politikoan. Hiru kontzeptu hauen elkarrekintzatik sortzen da ikerketa honen definizio esparrua eta bertatik abiatuta zehaztuko dira ondorengo analisiak ere.

Federalismoaren definizioari dagokionez, autore gehienek azpimarratzen dituzten ezaugarriak lurralde berean bizi den biztanlengoarengan erakunde ezberdinek erabakiak hartzearen gaitasunean jartzen dute begirada. Hemendik abiatuta, eztabaida irekia geratzen da, sistema politiko honek ongizate estatuaren egituratan lagundu edo oztopatzen duen argudiatzeko garaian. Autore batzuen iritziz, eta teoria klasikoak jarraituz, federalismoa ongizate estatuarentzako oztopoa da, eskubide sozialak garatzeko ezinbestekoa baita hauek modu bateratuan ematea lurralde osoan. Beste autore batzuen iritziz krisiak erakutsi du egitura federala ongizate estatuaren iraupenerako tresna baliogarria izan daitekela eta beraz, aurrekontu gabezia eta murrizketa garaietan gobernu maila ezberdinek ziurtatzen dutela estatu mota honen iraunkortasuna. Azkenik bada hirugarren autore multzo bat federalismoa ez duela zertan ongizate estatuarekin lotuta ikusten inongo zentzutan eta beraz, harremanik ez dagoela ondorioztatzen duen.

Federalismoa bera definitu ondoren, gizarte zerbitzuen kontzeptua definitzera igaroko gara ondoren. Horretarako, kontzeptu hau Ongizate Estatuaren kontestuan kokatuko dugu, II Mundu Gerraren ostean finkatutako fenomeno gisa. Marko honetan joango da eratzten Gizarte Zerbitzuen politika, gainontzeko politikak (hezkuntza, osasuna, gizarte segurantzak) baina beranduago, eta etapa ezberdinak igaro ondoren, bere definizio eta kontzeptzioan. Etapa hauek karitatea, gizarte laguntza eta beste hainbat hartuko dituzte bere baitan egungo kontzeptuaren definiziora iritsi arte.

Aterki orokor honetatik EAEko errealitatera gatz. Alde batetik, EAEko egitura bera federala den edo ez azaltzeko. Lehen adierazpen hau baieztatua geratuko da arestian aipatutako ezaugarriak EAera aplikatuz eta beraz, kontzertu ekonomikoak, Gernikako Estatutuak eta Lurralde Historikoen Legeak marrazten duten eszenatokiaren ezaugarriak behatuz. Modu honetara, EAEn barne egitura federala dela esan dezakegu. Hau esanda, gizarte zerbitzuen sistemak izan duen garapen juridikoa zehaztu daiteke segidan. Honetarako legedi orokorra aztertuko dugu eta baita arloari dagokion legedi zehatza ere, eskuduntza banaketan erreparatuz. Azterketa honek eszenatoki zatitu bat utziko digu EAEn,

aktore ezberdinen elkar ulertzea ezinbesteko eginez gizarte zerbitzuen garapenerako. Horrela, 1982tik onartutako hiru gizarte zerbitzuetako legeek antzeko eszenatokia marraztu dute eskuduntzen banaketari dagokionez: Jaurlaritzak plangintza eta lege proposamenak, Aldundiek exekuzioa eta plangintza beraien lurralde eremuetan eta Udalek lehen arreta eta exekuzioa.

Gauzak horrela, ikerketaren markoa azalduta, emaitzak bildu eta interpretatzea izango da hurrengo pausoa. Horretarako, bi teknika nagusi erabiliko dira. Alde batetik, bigarren mailako datuen analisia. Teknika honen bitartez, hiru lurraldetako adineko pertsonentzako egoitza eta eguneko zentruen datuak alderatuko dira, benetan lurralde arteko diferentziarik badagoen konparatzeko. Alderatutako aldagaien artean zerbitzuen eskaintza, gastu eta kosteak eta sarrerarako baldintzak izango dira. Bestetik, sakoneko elkarrizketak egingo dira hiru lurraldetako aktore politiko eta teknikoen artean, udal, foru eta jaurlaritza mailan, eta baita hirugarren sektoreko eta adituen artean ere. Modu horretara, sistema osatzen duten aldagai nagusien inguruko kontrastea egin ahal izango dugu eta hauen eraginak neurtu, diskurtsoetik abiatuta, sistemaren logika ulertu ahal izateko. Bigarren teknika honen esplotazioa eta analisia Atlas.ti programa erabiliz gauzatuko da.

Analisiaren lehen zatian, hiru lurraldetako datuak alderatzerakoan, desberdintasunak nabariak dira. Zerbitzuen eskaintzari dagokionean daude aldekatasun gehienak hiru lurraldeen artean. Baina hor amaitzen dira. Adineko pertsonentzako egoitzen kobertura oso antzekoa da hiru lurraldetan. Ez ordea eguneko zentroena. Gipuzkoak eta Arabak datu antzekoak dituzten bitartean, Bizkaia oso azpitik dago eguneko zentroen estalduran eta oso gaitetik, aldiz, hauek duten egun bakoitzeko prezioan. Titularitatea da beste elementu bereizgarri bat. Lurralde bakoitzak kudeaketa eredu diferentea du, publiko eta pribatuaren arteko oreka modu diferentean eginez. Honek plaza bakoitzaren prezioa diferentea izatera eramaten du dagokion administrazioarentzako. Azkenik, zerbitzuen onuradun izateko bete beharreko baldintzei dagokienez, hauek ere guztiz diferenteak dira lurralde bakoitzean. Adibide gisa, alde batetik, lurralde bakoitzak hau arautzeko dituen dekretu kopurua (4 dekretu batazbeste lurraldeko) baina baita, mendekotasun legetik eratorritako dirulaguntza eta zerbitzuen arteko bateragarritasun kriterioak. Hauek bateragarriak dira Gipuzkoa eta Araban (nahiz eta ez kasu berdinetan) baina ez Bizkaian. Honek ere diferentziak sortzen ditu beraz, bete beharreko baldintzei dagokienez, lurralde ikuspegi batetatik.

Bigarren mailako datuen analisi honek beraz, zera erakusten digu: desberdintasunak egon, badaudela hiru lurraldeen artean. Hurrengoa planteatu beharreko galdera beraz, desberdintasun horien arrazoiei dagokie, eta hori izan da segidan egindakoa. Sistemaren egituratzearren arrazoiei begiratuta, eta beraz desberdintasunak sortzearen ardura dutenei, zazpi nagusi detektatzen dira egindako analisian: federalismoa, finantziarioa, gobernantza, alderdi politikoak, path dependency, ezagutza eta ingurunea.

Federalismoari dagokionez, aldagai honekin, sistema politikoaren egitura federalak gizarte zerbitzuen nondik norakoan izandako eragina aztertu nahi izan dugu. Eskuduntzen banaketak, foralitatearen inguruko diskurtsoak edo erakunde ezberdinek jokatzen duten papera luze aztertuak izan dira aldagai honen baitan. Foralitatearen inguruko diskurtso ezberdinek justifikatu edo arbuiatu egiten dituzte lurralde arteko ezberdintasunak, estatu quo-aren defentsa batetik, edo 'herria horrela da eta nik horrela maite dut' logika batetik aldekoek, eta homogeneitatea eta eskuduntza banaketaren logika eza kontrakoek. Baina denek argi ikusten dute aldagaiak duen pisua eta honek modu zuzen batean determinatzen duela gizarte zerbitzuen sistemaren egitura eta erabaki hartze prozesua.

Bigarren aldagaia finantziarioarena da. Badira pertsonak aldagai hau aurrekoaren gaitetik jartzen dutenak, benetako arazoa dirua dela argudiatuz, egitura bera baina gehiago. Baina, orokorrean, iritzi guztiak bat datoz, dirua eta finantziarioa federalismoaren menpe dagoen zerbait dela azpimarratzen eta beraz, batak dituen eztabaidarako elementuek besteari ere eragiten diotela aipatzen. Are gehiago, elkarrizketatuetako gehienek ez dute krisia faktore erabakigarritzat eta gizarte zerbitzuen sistemak dituen elementuen oinarrian beste arazo batzuk daudela argi dute. Krisiak errekursoak gelditu dituela diote, baina hau hala gertatu izan ez balitz, egun sistemak dituen arazo antzekoen aurrean egongo ginakela aipatzen dute.

Hirugarren aldagaiak gobernantzari egiten dio erreferentzia eta sistemak bere burua gobernatzeko erabakitako organo eta tresnei buruzko eztabaida aztertzen du. Nagusiki, Erakundearteko Organoa jartzen da auzitan eta bere funtzioa koordinaziozkoa edo erabakiorra izan behar duen. Ez dago gai honetan adostasunik. Honi lotuta agertzen da baita ere, sistemaren lidergoaren inguruko eztabaida. Adostasun zabala dago lidergorik ez dagoela aipatzerakoan, baina ez lidergo horrek nolakoa izan beharko lukeen definitzerakoan. Jaurlaritzaren lidergoa? Lidergo partekatua? Atzeko eztabaida, noski, sistemaren egitura federalaren ingurukoa berriz ere.

Alderdi politikoei egiten die erreferentzia laugarren aldagaiak. Alderdiek gizarte zerbitzuen inguruko ereduaren eztabaidatzen da puntu honetan. Gehiengoa ados dago alderdien erreferentzia falta aipatzerakoan nahiz eta argi aipatzen den badaudela pertsona konkrituak alderdi guztietan eredu jakin bat badutenak, erakundeetan izandako eskarmentuagatik, nagusiki. Gauzak horrela, ondorioztatzen den beste ideia nagusi bat hauxe bera da: erakundeak direla eredu baldintzatzen dutenak eta ez alderdiak. Horregatik, erakunde arteko organoan posizio ezberdinak antzeman daitezke alderdi berdineko pertsonen artean, erakundeak hartzen baitu posizioa adierazteko pixua.

Bostgarren aldagaiak instituzionalismoaren teoriarik hartzen du bere izaera: path dependency edo erakundearen bidearen inertzia. Honen adiera zera da: dagoeneko berrogei urtez horrela izan dena aldatzea oso zaila dela, hobeto edo okerrago horrela izan dadin inertziak sortu direlako toki guztietan. Elkarriketatuen arabera horrela gauzatu da sistema bera ere, arrapaladan, eta horrela jarraitzen du aurrera orain ere.

Azken bi aldagaiak ezagutza eta inguruneari egiten diote erreferentzia. Ezagutzak gizarte zerbitzuen arloaren ezagutza eta produkzio zientifiko eskasa nabartzen dute egiturazko faktore gisa, honen egonkortze ahula azaltzeko. Elkarriketatu baten metaforari helduz, posible litzake honen inguruan idazten duten pertsona guztiak Txoko batean batzea bazkari bat egiteko, eta hauxe litzake errealitatea. Inguruneak beste hainbat faktoreri egiten dio erreferentzia, sistemarenak zuzenean izan gabe honi eragiten diotenak.

Ondorioz beraz, esan daiteke EAEko Gizarte Zerbitzuen Sistema gaur egun ezberdina dela Lurralde Historiko bakoitzean, eta nekez hitz egin dezakegula Euskal Gizarte Zerbitzuen Sistemaz, elementu komunak topatzea neketsua baita bere osaeran. Baina ezberdintasun hauen sorrera ez da unifaktoriala, ez dagokio aldagai federalari soilik, normalean izaten den bezela, hainbat elementuren batura da. Elementu federalak bere baitan hartzen du finantziazioa. Baina honi, edo hauei batu egin beharko litzazkieke, triangulu perfektu batean, alderdi politikoen eredu eza eta baita ezagutza zientifikoaren gabeziak. Hiru elementu hauek elkarrekin azaltzen dute egun EAEko gizarte zerbitzuen sistemak bizi duen egoera eta hiru elementu hauek beraz dira ezberdintasun hauek sortu eta irautearen arduradun. Identifikazio honetatik abiatuta etorri beharko dira neurriak, hartu beharrekoak benetan justizia sozialean oinarritutako gizarte bat helburu badugu.

4. Etorkizunerako planteatutako norabidea

Ikusi dugu EAEko gizarte zerbitzuen sistemak lurralde ezberdintasunak sortzen dituela eta baita zein faktoreen inguruan lan egin beharko litzakeen aldaketa bat eman dadin. Baina hau ez da automatikoa izango, politika publikoetan beti gertatzen den bezela, aldaketa guztiak progresiboak izango dira. Elementu federalari begiratuta, sistemaren homogeneizaziorako bideak bilatu beharko dira, egun daudenetatik haratago, eskumen banaketa gailenduko dutenak. Eta hau egitea posible da, erakunde egitura zalantzan jarri gabe, hezkuntzan edo osasunean ikusi den bezela. Baina kontsentsu politikoak urrutu daudela dirudi.

Eta hauxe da ekin beharreko bigarren erronka. Kudeaketa ereduaren gainetik (edozein politika publikoetan eman daitekeena) alderdiek bere egingo duten gizarte zerbitzuen eredu bat landu behar dute, benetako eztabaidarako emango duena. Eta baita unibertsitateek eta ezagutza zentruak ere. Gizarte zerbitzuen inguruko ikerketan sakonduz, gaia ezagutzera eman eta egituraketarako faktore garrantzitsua izan daiteke. Ez da biharko. Ezta etzirako ere. Baina zilegia da berdintasunean oinarritutako gizarte hobeto batean ikuspuntua jartzea, ezta?

5. Erreferentzia batzuk

- Aguilar Hendrickson, M. (2009). Servicios sociales: la tribulación de un sector emergente. In L. Moreno (Ed.), *Reformas de las políticas de bienestar en España*. Madrid: Siglo XXI.
- Alemán Bracho, C., Alonso Seco, J. M., & García Serrano, M. (2011). *Servicios Sociales públicos*. Madrid: Tecnos.
- Alguacil Gómez, J. (2012). La quiebra del incompleto sistema de Servicios Sociales en España. *Cuadernos de Trabajo Social*, 25(1), 63–74.
- Arrieta, F., & Etxezarreta, E. (2012). Análisis de la colaboración público-privada en el sector de los servicios sociales en Gipuzkoa: el modelo guipuzcoano de concertación con el tercer sector a debate. *Oñati Socio-Legal Series*, 2(4). Retrieved from <http://ssrn.com/abstract=2013101>
- Castles, F. G., & Obinger, H. (2008). World, Families, Regimes: Country Clusters in European and OECD area Public Policy. *West European Politics*, 31, 321–344.
- Costa-Font, J., & Greer, S. L. (2013). *Federalism and decentralization in European health and social care*. London: Palgrave.
- Del Pino, E., & Rubio Lara, M. J. (2013). El estudio comparado de las transformaciones del Estado de Bienestar y las políticas sociales: definiciones, metodología y temas de investigación. In E. Del Pino & M. J. Rubio Lara (Eds.), *Los Estados de Bienestar en la encrucijada* (pp. 23–60). Madrid: Tecnos.
- Duque, J. M. (2012). Redescubrimiento de los servicios sociales de atención primaria: hacia un (nuevo) modelo de atención personal y comunitaria. *Zerbitzuan Aldizkaria= Revista de Servicios Sociales*, 52, 23–44.
- Esping-Andersen, G., & Palier, B. (2010). *Los tres grandes retos del Estado de Bienestar*. Barcelona: Ariel.
- Etxeberria, X., De la Cruz, C., & Sasia, P. (2009). Marco ético del modelo de servicios sociales en Gipuzkoa. In *Ponencias del proceso de reflexión. Hausnarketa prozesuaren txostenak* (pp. 41–74). Donostia - San Sebastián: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Etxezarreta, E. (2012). *Gizarte ekonomiaren aukera zaintzen krisiaren aurrean: Gipuzkoako pertsona nagusien alorra aztergai*. UPV-EHU. Retrieved from http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Enekoitz_Etxezarreta_TESIA.pdf
- Fantova, F. (2008). *Sistemas públicos de servicios sociales. Nuevos derechos, nuevas respuestas*. (serie Cuad.). Bilbao: Universidad de Deusto.
- Gallastegui, M. C., & Gallastegui, I. (1986). *Un análisis económico de la Ley de Territorios históricos*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Gallego, R., & Subirats, J. (2011). *Autonomies i desigualtats a Espanya: Percepcions, evolució social y polítiques de benestar*. Barcelona: Generalitat de Catalunya.
- García Herrero, G. (2005). Ideas, argumentos y propuestas sobre los servicios sociales, la autonomía personal y la protección de las personas en situación de dependencia. *Trabajo Social Hoy*, 2, 17–66.

- Goikoetxea, J. (2012). Nationalism and Democracy in the Basque Country (1979–2012). *Ethnopolitics*, 12(3), 268-289. doi:10.1080/17449057.2012.711049
- Guillén, E., & Vilá, A. (2007). Los cambios legislativos recientes en materia de servicios sociales. In D. Casado & F. Fantova (Eds.), *Perfeccionamiento de los servicios sociales en España: informe con ocasión de la Ley sobre autonomía y dependencia*. Madrid: Fundación Foessa.
- Keating, M., & McEwen, N. (2005). Introduction: Devolution and public policy in comparative perspective. *Regional and Federal Studies*, 15(4), 413–421. Retrieved from <http://www.tandfonline.com/doi/abs/10.1080/13597560500230516>
- Leibfried, S., & Mau, S. (2008). *Welfare States: Construction, deconstruction, reconstruction*. Northampton: Edward Elgar.
- Moreno, L. (2013). *La Europa asocial*. Barcelona: Debate.
- Moreno, L., & Mari-Klose, P. (2013). Las transformaciones del Estado de Bienestar Mediterráneo: trayectorias y retos de un régimen en transición. In *Los Estados de Bienestar en la encrucijada* (pp. 126–146). Madrid: Tecnos.
- Moreno Márquez, G. (2003). *Trabajo y ciudadanía. Un debate abierto*. Vitoria - Gasteiz: Ararteko.
- Novo, A. (2010). *La excepcionalidad del modelo federal foral vasco*. Valencia: Tirant lo Blanch.
- Obinger, H., Leibfried, S., & Castles, F. G. (2005). *Federalism and the welfare state* (Vol. 2005). Cambridge: Cambridge University Press.
- Rodríguez Cabrero, G. (coord), Aguilar Hendrickson, M., Alfama, E., Arriba, A., Carrasco, C., Casado, D., ... Montserrat, J. (2014). Estado de bienestar en España: transformaciones y tendencias de cambio en el marco de la Unión Europea. In Fundación Foessa (Ed.), *VII Informe sobre exclusión y desarrollo social en España 2014* (pp. 300–393). Madrid: Caritas Española.
- SiiS. (2012). *II Informe del Consejo Vasco de Servicios Sociales*. Vitoria - Gasteiz.
- Sobremonte, E. (2009). *Deshaciendo la madeja de los servicios sociales*. In EHUko Uda Ikastaroak. Donostia - San Sebastián: UPV-EHU.
- Sotelo, H. (2005). Marco normativo de los servicios sociales en la CAPV y propuesta de reordenación. In VVAA (Ed.), *Situación y perspectivas del sistema público de servicios sociales en la Comunidad Autónoma del País Vasco*. Vitoria - Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- Taylor-Gooby, P. (2004). *New Risks, New Welfare: The transformation of the European Welfare State*. Oxford: Oxford University Press.

6. Oharrak

Aurkeztutako lana nire doktorego-tesiaren laburpena da. Tesia 2015eko apirilean defendatzea aurreikusten da Deustuko Unibertsitatean (Donostia). Tesiaren zuzendaria Emma SOBREMONTTE DE MENDICUTI anderea izan da.